



ORAINGO ERRENDERI!!!

SABIN

Orain dala iru urte, arriturik gelditu banitzan amabi urte erriya ikusi gabe negolarik, zer esango ote det orain berriro zuen artean elkarturik nagola. Bai jauna!, erriya gora dijoa gai guzietan.

Galtzaraborda, Beraun, Pontika... Goiko Mojetako etxe oyek ikusirik, nere begiyak arriturik eta oldozpenez beteak arkitzen dira. Egiya da «ola» edo «fabrika» asko jun diradela erritik, bañan bai eta ere berri asko eta asko ikusi dituala bazter guzietan, onuntza etorri ezkeru, «erriya aurrera dijoala dudarik ez daukat! Denbora bateko kaleko ibillerak, orain berrogei ta amar milla aldiz geyago ikusten gaude guziyak. Erriko alkate jauna, zer esanik ez, lan ugaritsuba egiten ari da erriyaren alde; udal-etxea eta eliz nagusiyaren atariya guztiz apainduta dagozte, oso ikusgarriyak benetan!!!

Eta zer diozute eres, abesti eta kultura kontuetan? Orain dala denbora gutxi, euskal aste bikaña izan gendun; beste festa askoren artean, eliz nagusian, Arrasateko eresbatza eta abesbatzak egin zuten «Txanton Piperri». Ura ez da errex aztutzekoa, benetan entzungarriya! Ni beñepein zoraturik arkitu nitzan egun ayetan. Zer esanik ez aurtengo «Musikaste» orretan entzun genitun abesbatz bikain, lirañak... zoragarriyak guziyak! Zein baño zein obeak! Aspaldiko urtietan ez nuben entzun gauza obeagorik eta orrengatik esan genezake, pozez, argi eta garbi: ludi guzian non ote dago Gipuzkoko erri txiki abetan bañan abesbatz obeagorik eta ugariagorik? Iñun ez! Au bai dala benetako egiya: iñun ez! Alkate jaunari eta gañontzeko laguntzallei eskerrak, ikusi eta entzun genitun abesti zoragarri oyek. Bai eta ere festa oyen tartean ikusi genduben gure maixu izandako Bautista Olaizola (G. B.), abade jator arren oroipenez egin zan jai gogoangarriya, bere etxean. Bere ikasle asko izan giñanoi, malko sentigarriyak jaurti zitzaizkigun gure begiyetik, alkateak bere omenez esan zituban itz xamur ayek entzunda. Berdin «Andra-Mari»ko abeslariak, «Agur Jaunak» abesti eder ori abestu ondoren. Bai Jauna! Festa eder oyek, esaten dan bezela, or gelditzen dira!

Urratu nai dubenak naiko lana izango du, ez al da egiya? Dudarik ez dago orain erriyan kanpoko jendia iñoiz bañan geyago dagola, bañan baita ere bertako seme asko daudela bere erriyaren alde zer edo zer egiten dutenak, eta oyeri esker erriya goruntz eta aurrera dijoa.

Nik ludiko gora-bera batzuek kontatuko nituzke, bañan lengoak esanda, beste gai bat bururatu zait, eta erriko festa aben omenez, or dijoa xelebrequeri bat:

Erriyan gertatuba. Goiko kolean senar-emazte izan nai zuten bi gazte bizi ziran, edo obeto esateko, bata bestearen atzetik zebiltzen, bañan mutillak, nai zubenian, gorraide pixken bat izaten zuben... Gabero neskatil gaxoa jutun zan bere billa eta diadar egiten ziyon bañan mutilla ez zan jexten; berriro, Patxi!... emen nago zure zai!... eta berdin. Orduban, gau ortan, Patxi onen lagun batek topatu zuban, eta esan zion neskatillari: Ikusiko dezu nolatan eta tximista baño azkarrago jetxiko dan. Eta esan eta egin: Patxi onen lagunak aldabari iru kazkarreko aundi eman ondoren, diadar egin zion esanaz: «Patxi Lekunberri!... Kartero! bi milla peztako jirua»... Ori entzun zubenian aitaren egin baño azkarrago jetxi zan, neskatillaren zorionerako.

Orrelakoa da bada gure erriya, alaya, langillea, abeslariya, eta baita ere txistagarriya.

Besterik gabe igaro danok jai alai, umorez beteak!